BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIA ETA OGASUN SAILA
INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

6120

262/2011 DEKRETUA, abenduaren 13koa, Sociedad para la Transformación Competitiva - Eraldaketa Lehiakorrerako Sozietatea, SAri Sociedad Parque Tecnológico de San Sebastián - Donostiako Teknologi Elkartegia, SA sozietatearen kapital-gehikuntzan parte hartzeko baimena ematen diona.

Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Baltzua (gaur egun Eraldaketa Lehiakorrerako Sozietatea, SA) sortzeari buruzko ekainaren 10eko 5/1981 Legearen 4.2 artikuluan agindutakoaren arabera, bereziki interesatzen zaizkion enpresen kapital sozialean parte har dezake sozietateak. Horretarako, ordea, Eusko Jaurlaritzak baimena eman beharko dio aldez aurretik eta kasu bakoitzean ezartzen diren baldintzak bete beharko ditu.

Donostiako Teknologi Elkartegia SA sozietatearen helburu soziala hau da: batetik, eraikin- eta azpiegitura-multzo bat sortzea, goi-mailako teknologiako enpresak ezarri eta eduki zientifiko eta tekniko handiko jarduerak garatu ahal izateko, eta, bestetik, unibertsitatearen, zentro teknologikoen eta enpresen artean teknologiaren transferentzia bideratzea eta bultzatzea, hartara, ahalmen handiko eremu bat sortzen baita, eta oinarria jartzen teknologia berriak garatzeko eta enpresa berritzaileak erakartzeko.

Eraldaketa Lehiakorrerako Sozietatea, SA sozietatearen Administrazio Kontseiluak, 2011ko uztailaren 21ean egindako bileran, Eusko Jaurlaritzara jotzea erabaki zuen, Eraldaketa Lehiakorrerako Sozietatea, SA sozietateari, 5/1981 Legearen 4,2. artikuluko 2. puntuan jasotakoaren arabera, baimena eman diezaion, Donostiako Teknologi Elkartegia, SA sozietatearen kapital-gehikuntzan zortzi milioi (8.000.000) eurorekin parte hartzeko. Hori, % 87,74ko partaidetza da, guztira bederatzi milioi ehun eta hamazortzi mila eurokoa izango baita (9.118.000). Gehikuntzaren ostean, Eraldaketa Lehiakorrerako Sozietatea, SAk Donostiako Teknologi Elkartegia, SAn izango duen partaidetza % 65,09koa izango da.

Ondorioz, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuak eta Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuak proposatuta, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2011ko abenduaren 13an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– Eraldaketa Lehiakorrerako Sozietatea SAri baimena ematea Donostiako Teknologi Elkartegia SA sozietatearen kapital-gehikuntzan zortzi milioi eurorekin (8.000.000) parte hartzeko. Zenbateko hori gehikuntzaren % 87,74koa da, guztira bederatzi milioi ehun eta hamazortzi mila (9.118.000) eurokoa izango baita. Gehikuntza horren ondoren, Eraldaketa Lehiakorrerako Sozietatea, SA sozietateak Donostiako Teknologi Elkartegian duen partaidetza %65,09koa da.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu honek onartzen den egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteizen, 2011ko abenduaren 13an.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Ekonomia eta Ogasuneko sailburua,
CARLOS AGUIRRE ARANA.

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburua,
BERNABÉ UNDA BARTUREN.